

IZAR-MOLTZOAK IKUSTEN

Gau baten guk ikusten doguzan izarrak obo-erdian 30.000 izar dira eta beste ainbeste dagoz egoaldeko oboerdian, guztiz 60.000 dira geure begi utsakaz ikusi geinkezan izarrak.

Izarrik argitsuena bakoitxak bere izena dauke: Sirius, Rigel, Bellatrix, Kastor, Antares, Betelgeuse, Regulo eta beste amarreko batzuk. Baiña beste era batera be izendatzen dira izarrak. Flamsteed'ek zenbakiakaz, Bayer'ek grezitarren alfabetoagaz. Alfabetoaren izkiak gitxiegi dira orretarako.

Ursa Nagusia da bidea asteko leku ona, beti ikusten dalako. Zazpi izar dira eta artzaren antza dauke, baiña geiago burdi batena, izen ori be emoten jako, Txina'n esaterako.

Onen besoan dago Alkaid izarra eta ondoan Mizar eta onen ondoan Alioth, Megrez... Mizar'en ondoan beste bat dago: Alkor. Au begi ona daukonak ikusi leike.

Goazen Ursa'ren atzetik gora artez eta Polo'ko izarra aurkituko dogu Ursa Txikian. Ez dago doi-doi poloan, baiña bai gradu bat baiño urrago.

Polo izarra Ursa Txikiaren ertzean dago eta inguruan Dragon izar-moltzoa: Zefeo. Eta sortalderago Kassiopeia eta sortalderago Andromeda izar-moltzoa, auxe da begi utsez oboaren iparraldean ikusten dan izar-moltzo bakarra. Andik laster Pegaso aundia dago.

Asi gaitazan barrero Ursa Nagusitik: Alkaid'etik aurrera, narranja-koloreko Arturo izarra dago (Idizain moltzokoa) Gorantza jarraitu ezkerreko iru izar moltzo

daukaguz: Iparreko korona, Herkules eta Lyra. Onen barruan Vega izarra dogu nagusi eta geien argi egiten dauana oboaren ipar-aldean. Emendik 24 argi-urtera dago, Esne-Bidearen barruan, Apex puntuan: Orrantza joaten da eguzkia lurragaz eta beste planetakaz.

Esne-Bidearen barruan Sagitario izar-moltzoa daukagu eta inguruan eta izar-laiñoak. Gero Antares izarra gero Antares izarra eskorpion izar-moltzoaren barruan.

Ursa Aundia bagerik beste bide bat artzeko lekua Orion izarra dogu, baiña, au ez da ikusten udazko egunik luzeenetan, eguzkiak bere argiagaz estaltzen daualako. Ortik kanpora errez ikusten da eta izarrik ederrenetarikoa da.

Aurrera ta aurrera, or aurkituko doguz Betelgeuse, Rigel, Trapezi...

Arlo onetan beti dagoz izan barriak sortzen eta izar moltzoetatik urteten.

Or dagoz Iru Maria'k, Orion'en inguruan. Berago Txakur Aundia izar-moltzoa dago eta bertan Sirius argitsuena.

Sirius eta Iru Mariak lerro bategaz alkartzen ba'doguz, Taurus izar-moltzora goaz, Hiades'era. Emen daukagu ospetsua ta laranja-kolorekoa dan Aldebaran izarra. Aurrera jarraitu ezkerreko Pleiadeak aurkituko doguz, oneik dira zeruko izar-moltzorik ederrena. Begiz ikusten dira euren artean 8 izar eta teleikuskiñagaz amarkadak.

Edertasunak poza emongo dausku ikus-gailluakaz edertasun asko billatzeko.

OLAZAR'tar Martin'ek

GORETZATU JAUNA

Goretzazu Jauna
goresgarria da –ta
zeru ta lurretan,
Bera da Jaun ta Jabe
biziaren Sortzaile
erreñu guztietan.

Zerua eta lurra
maitasunez sortuak
eder eder dira,
ez dago gauz bardiñik
ta guztien gidaria
Jaungoiko berbera.

Lurtar seme-alabak
goratu egizue
Jaungoiko Altsua.
maitasuna dario
egite guztietan
arduraz ondua.

JAUNAREN IZENA AUNDI

Jainkoren izena
egiz, agurgarria
izan zan lurrean,
Israeldarrak, gogoz,
goratu eben Jesus
gizadi-aurrian.

Jesus agurgarriak
gizadiaren alde
errukiz beterik,
mirariz josi eban
Israel lurraldea
lur dana ondurik.

Maitasuna erion
egite guztietan
lurraren aurrian,
maitez osotu eban
bizitz zoragarria
Kukutza gainian.

PAULIN